

Koaderno Sindikalak **IRAKASKUNTZA**



euskal
eskola
publiko
komunitarioa
iruten

Duela lau urte, LABek IRUTEN dinamika martxan jarri zuen. Euskal Herriak behar duen hezkuntza sistemaren eraikuntzan urrats praktikoak emateko, hausnarketa eta tresna eraginkorrak sortu eta partekatzea da dinamika honen xedea Ebaluazio Hezitzailearen gaiari heldu genion lehenik: Koaderno Sindikala argitaratu, jardunaldi arrakastatsuak egin eta ebaluazioaren inguruko eztabaida eraman genuen eskoletara.

Oraingo honetan, gure hezkuntza komunitatean hainbeste eztabaida eta zatiketa eragin duen gaiari heldu nahi izan diogu: hezkuntza sistemaren antolaketa. Horretarako, etorkizunari begira jarri gara lehenik, zer nolako hezkuntza sistema nahiko genukeen irudikatuz; eta bigarrenik, datozen urteetan zer nolako urratsak eman ditzakegun zehazten saiatu gara. Espero dugu ekarpen honek ortzimuga komun bat ezarri eta elkarlanerako baldintzak sortzen lagunduko duela.

Koaderno honetan biltzen den gogoetak ibilbide mamitsua izan du. Propio sortutako lan-taldeak egindako proposamena afiliatuen batzarretan eztabaidatu zen eskualdez eskualde 2018ko udazkenean. Hainbat hezkuntza eragilerekin ere izan ginen iritziak trukatzeko asmoz. Batzuen nahiz besteen ekarpenekin aberastutako txostenak LABen Nazio Biltzarraren onespena jaso zuen.

Koaderno sindikal honen osagarri gisa, "Euskal Hezkuntza: Nondik gatoz, non gaude, nora goaz" dokumentua argitaratu dugu honako helbide honetan: <http://www.lab.eus/iruten>

1. SAR HITZA:

HEZKUNTZA EGITASMOA BERRITZEN

Hezkuntza: menperatzeko ala askatzeko tresna

Hezkuntza, menperatzeko ala askatzeko tresna izan daiteke.

Egitura politikoaren kontrola duen elitearentzat, indarrean dauden baloreak eta jarrerak birproduzitzeko mekanismoa da hezkuntza; nazio, genero nahiz klase hegemonikoaren baloreak eta jarrerak, hain zuzen ere.

Aldiz, zampaketak gabeko jendartea sortu nahi dugunontzat, hezkuntza mundua hobetzeko prozesua da; mendeetan zehar eliteen mesedetan eraikitako arrazakeria/nazio zapalketa, patriarkatua eta klasismoa deseraikitzeke aukera. Hezkuntzak ezin du bere kabuz klase sozialak edota patriarkatua desegin, horretarako iraulketa soziopolitiko eta sozioekonomikoa beharrezkoa da. Baina hezkuntzak azpiratutako giza-taldeak ahalduz lagun dezake, iraulketa horretarako baldintza subjektiboak hobetuz. Hezkuntza eraldaketa, beraz, jendarte eraldaketa orokorarekin uztartu beharra dago.

Honela, askapen mugimendu orok, besteak beste Euskal Herrikoak, garrantzia handia aitortu dio hezkuntzari, belaunaldi berriak justizian eta askatasunean hazteko xedez. Europako sozialista eta feministentzat, deskolonizazio mugimenduentzat edota kontinente ezberdinetako iraultzaileentzat lehentasunezkoa izan da azpiratutako jendarte sektoreen alfabetatzea eta heziketa, parametro berri batzuen arabera. Ikuspegi honetatik, hezkuntza gizabanakoa nahiz jendartea ahalduzterako tresna nagusietako bat izan da.

Hezkuntzaren inguruko definizio neutroek sakoneko gatazka hau ezkutatu ohi dute. Baina funtsezkoa da hezkuntzaren inguruko edozein irakurketa eta proposamen egiteko orduan. Euskal Herrian dugun hezkuntza, bere adierarik zabalenean, sakoneko tira-bira horren ondorio da. Gaur egun ezagutzen dugun hezkuntzak, neurri batean, eliteek ezarritako parametroen eragina dauka; baina beste neurri batean, zampaketa ezberdinen kontzientzia izan duten herritarren eragina ere badauka.

Krisi sistemikoa eta aldaketa etengabea

Erronka potoloak ditugu, zalantzarik gabe, datozen urteetan. Kapitalismoaren garapenak askotariko krisiak sortzen ari da: prekarizazio eta pribatizazio prozesuak, zaintzaren krisia, indarkeria sexista, gerra inperialistak, hondamendi ekologikoa nahiz erregai fosilen amaiera, migrazio mugimendu erraldoiak. Egiturazko arazo larriak eta erronka kolektibo estrategikoei egin behar dio aurre jendarteak. Baita hezkuntzatik ere.

Horrekin batera, aldaketa etengabearen sententzia nabaria da. Ideiak eta bizimoduak egunetik egunera aldatzen dituen munduan bizi garela ematen du. Mass mediak, sare sozialek eta etengabeko berrikuntza teknologikoei ezarritako erritmo frenetikoan mugitzen gara. Oinarrizko baloreak eguneratzeko ahalegin etengabearen aritu behar dugu askatasun eta justizian sinesten dugunok. Baita hezkuntzan ere.

Indar neoliberalak jendartea oro har eta zehazki hezkuntza esparrua merkantilizatzeko eta euren beharretara moldatzeko ahalegin etengabearen dira. Bada garaia ezkerretik alternatibak garatzeko, hala orokorrean nola hezkuntza esparruan.

Hezkuntza burujabetza vs. Inboluzioa

Herri bezala erronka handiei aurre egin behar diogu, baita hezkuntzatik ere, baina ez dugu horretarako beharrezko baliabiderik. Euskal Herriari oro har eta hiru lurralde esparruei zehazkiago hezkuntza sistema propioa egituratzeko eskubidea ukatu egiten zaio. Honela, Frantziako eta Espainiako estatuen eta euren hezkuntza sistemen eraginpean gaude.

Espainiako Estatuan inboluzio autoritario eta zentralista gertatzen ari da. PSOEk krisiari aurre egiteko neurriekin hasi zen prozesua (murrizketak, sektore publikoa mugatzeko legedia, 135. artikularen erreforma eta negoziatio kolektiboaren estatuzko bide ematea); PPren lehen gobernuarekin sakondu zen (LOMCE, arau fiskalak); eta Kataluniaren kontrako oldarraldiarekin azkartu daitekeela ematen du. EAE eta Nafarroan dauzkagun hezkuntza eskumen mugatuak arriskuan daudela esatea ez da gehiegikeria bat. Frantziako Estatuak, bere aldetik, eutsi egiten dio estatu eredu eta hezkuntza sistema zentralizatuari.

Honela, hezkuntza eredu propioaren norabidean espazioak irabazi baditugu ere, hezkuntza burujabetza osoa eskuratzea ezinbestekoa da aipatutako erronkei aurre egiteko. Euskal Herriko hezkuntza ereduak Euskal Herriko hezkuntza komunitateak, jendarteak eta instituzioek adostu behar dute. Horixe da edozein hezkuntza akordio edo itunerako oinarrizko premisa.

Hezkuntza ereduaren inguruko balizko herri akordioa(k)

Hezkuntza ereduaz erabakitzeke eskubidea defendatzearekin batera, zer nolako hezkuntza eredu garatu nahi dugun adostu beharra dugu Euskal Herrian oro har eta esparru administratibo bakoitzean zehazkiago. Txosten honetan, LABek bere hezkuntza proposamena biltzen du eta gainontzeko eragileek ere badute berea egiteko aukera. Hezkuntza komunitatean, jendartean nahiz instituzioetan eztabaidatu eta bilatu beharko ditugu adostasunak.

EAEen balizko hezkuntza itun baten inguruko eztabaida irekita dago. LABen ustez, Eusko Jaurlaritzak egin duen oinarrien proposamenak ihes egiten dio burujabetzaren eztabaidari eta ondorioz ontzat ematen du egungo menpekotasun egoera, baita bi hezkuntza-saretan oinarritutako eskema. Ikastetxeen autonomia handitzeaz mintzo da baina baliabideak handitu gabe. Ikasle guztiek B2 maila eskuratzeko helburua jartzen du baina ez du murgiltze ereduaren aldeko jarrera argi adierazten. Euskal Curriculumari eta berrikuntza pedagogikoari izkin egiten dio. Eta albo batera uzten ditu feminismoaren nahiz justizia sozialaren inguruko oinarriko eskakizunak, hezkuntza androzentrikoa eta segregazioa betiketuz.

Nafarroan, berriz, hamarkadetan zehar Erregimenak kudeatutako Hezkuntza Saila Geroa Bairen esku dago eta Aldaketaren laukoaren babesa behar du. Gainera, aldetaren aldeko gehiengo sindikala egon badago. Horrek aldetarako aukerak ematen ditu baina orain arte ez da apenas urratsik eman. Geroa Bai uzkur azaltzen da eta Izquierda-Ezkerrak Troyaren zaldia egiten du euskararekin lotutako gaietan.

Ipar Euskal Herrian, azkenik, lehen instituzio propioa sortu da. Horrek hezkuntza esparru propioa aldarrikatu eta jorratzeko aukerak areagotzen ditu.

Testuinguru honetan, hezkuntza sistema propioa eraikitzeke LABen proposamena berritzeko tenorea da; horretara dator, hain zuzen ere, koaderno hau.

2. LABen HEZKUNTZA EGITASMOA:

hezkuntza sistema burujabea, euskal eskola publiko komunitarioa ardatz

Gure ortzimuga estrategikoa honako hau da: pertsona libreak hazi eta heziko dituen jendarte libre. Horretarako, Euskal Errepublika Konfederalaren baitan, eskola publiko komunitarioa ardatz izango duen hezkuntza sistema propioa eraikitzeke apustua egiten dugu. Norabide horretan, esan bezala, ezinbestekoa da hezkuntza burujabetza eskuratu eta behar dugun hezkuntza eredu gaurdanik garatzea, ditugun indarguneak baliatuz eta ahulguneei aurre eginez. Zehazki, honako hauek dira LABek defendatzen duen egitasmo estrategikoaren ardatzak:

Hezkuntza euskal herritar ororen eskubide eta euskal jendartearen garapenerako ardatz estrategiko gisa aldarrikatzen dugu.

- ☒ **Herritar ororen eskubide:** euskal herritar orok, edozein delarik bere errenta-maila, sexua, jatorria edota bestelako ezaugarriak, hezkuntza ibilbide osoa doan egiteko eskubidea du. Ezin da inor bazterrean utzi eta desabantailak dituzten horien heziketan arreta eta baliabide handiagoak ezarri behar dira.
- ☒ **Euskal jendartearen garapenerako ardatz estrategikoa:** osasuna eta zaintzarekin batera, politika publiko nagusienena izan behar du etorkizuneko Euskal Errepublikan. Estatuak bere egin behar du hezkuntza sistema osoa antolatzeko, finantzatzeko eta sustatzeko ardura, ardura hori ekimen eta ondorioz interes pribatuen esku utzi gabe.

Hezkuntzaren gaineko ikuspegi integral, askatzaile eta burujabea aldarrikatzen dugu.

- ☒ **Integrala:** Jaiotzetik eta bizitza osorako; hezkuntza formala, ez-formala eta informala kontutan hartuta. Halere, 0-18 epealdiak garrantzia berezia dauka, adingabeko guztiei oinarriko hezkuntza eskubidea bermatzeari begira¹. Bizitzaren lehen urteetan haurra etxean hezteko aukera erraztu egin behar zaie familiei, kontziliazio eta korrespontsabilitate neurriak hartuta.

1. Adingabekoez aritzean 0-18 epealdia aipatzen da, egun horrela ezartzen delako, baina jakina, etorkizuneko Euskal Errepublikan bestelako aukera bat egin liteke.

☒ **Askatzailea:** belaunaldi guztiekin eta bereziki berriekin zampaketarik gabeko mundu bat sortzeko prozesua izan behar da hezkuntza. Patriarkatua deusezteko, feminismoa; klasetan banandutako jendarte gaitzeko, sozialismoa; arrazismoa, inperialismoa eta nazio zampaketarekin amaitzeko, internazionalismoa; Ama Lurrarekiko begirunean oinarritutako garapenerako, ekologismoa. Horiek dira gure erreferentzia estrategikoak.

☒ **Burujabea:** Hezkuntza burujabetza aldarrikatzen dugu, bi zentzutan: euskal ikasle/herritar burujabeak hezteko; jendarte burujabea garatzeko.

Nazio askapen mugimenduak hezkuntzari buruz izan duen ortzimuga estrategikoa berreskuratu/indartu nahi dugu: euskal eskola publiko komunitarioa ardatz izango duen hezkuntza sistema propioa.

☒ **Hezkuntza sistema propioa:** Euskal Herriak bere hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea du. Bertako herritarrok, hezkuntza komunitateak nahiz herri instituzioak gara hezkuntza ereduaren gaineko erabakiak hartu behar ditugunok, inongo muga edota inposaketarik gabe. Euskal Herrian adostu eta erabaki behar da, besteak beste, irakaskuntzaren antolaketa orokorra, curriculum komuna nahiz ikastetxe guztiek bete beharreko oinarriko irizpideak.

☒ **Euskal eskola publiko komunitarioa:** Inposatu zaigun Espainia nahiz Frantziako publikotasun eredu zentralizatuaren aurrean, Euskal Herriko publikotasun eredu komunitario/komunal/autogestionatu/herritarra defendatzen dugu. Diru publiko osoki finantzatu eta ondorioz doakoa. Familiek nahiz ikasle orok badu norberaren auzo eta herrian eskola publiko komunitario batean hezteko eskubidea.

☒ **Bestelako eskolak:** bi hezkuntza-sareen sistema baino, etorkizunari begira askotariko auzo eta herri eskola autogestionatuz osatutako eskola sare bakarra defendatzen dugu, euskal eskola publiko komunitarioa. Halere, ez dugu uste eskola pribatuak sortzeko aukera guztiz debekatu behar denik. Hori bai, sortuko balira, horrelako eskolek Euskal Herri mailan ezarritako oinarriko arauak zorrozki bete beharko lituzkete (euskalduntzea, euskal curriculum, parekidetasuna eta abar). Eta bestalde, ez lukete inongo diru publikorik jasoko.

Lurralde antolaketari dagokionez, Euskal Herriko Errepublika Konfederalean, udalen sarea, hiru hezkuntza administrazio eta hiruek partekatutako hezkuntza sistema edo eremu komuna aurreikusten dugu.

Gaur egun bi hezkuntza sistema ditugu, espainiarra eta frantsesa; lehenengoa kudeatzeko, bi hezkuntza administrazio daude, EAE eta Nafarroa. Sortu nahi dugun Euskal Herriko Errepublika konfederalean hiru maila aurreikusten dugu:

- 1. Oinarriko maila udal eta udal mankomunitateek (edota eskualdeek)² osatuko dute.** Hauek lukete kudeaketarako eskumena 0 urtetik batxiler eta lanbide heziketaraino. Horretarako nahikoa finantziaketa jasoko dute hezkuntza administrazioaren aldetik. Hezkuntza administrazioen ardura litzateke eskualde guztiek behar bezalako finantziaketa jasotzea, bakoitzaren ezaugarrien arabera. Landa eremuko eskualdeetan eskola txikiak sustatuko dira eta hiriguneetan eskola ertainen aldeko apustua egingo da, makrozentroei uko eginez.
- 2. Hiru hezkuntza administrazio, Errepublika osatuko duten estatu bakoitzeko bana (EAE, Nafarroa, Ipar Euskal Herria)³.** Administrazio hauek hezkuntza sistema koordinatu, dinamizatu eta gainbegiratu dute, besteak beste, Euskal Herri mailan ezarritako irizpideak betetzen direla bermatuz, udalerrri/eskualdeek ikastetxeak kudeatzeko behar duten finantziaketa bideratuz eta laguntza gehiago behar duten udalerrri/eskualdeetan laguntza hori emanez.
- 3. Euskal Herri osorako hezkuntza esparru edo sistema komuna:** deszentralizazioaren aldeko apustua egiteak ez du esan nahi Euskal Herri osorako orube komunari uko egiten diogunik, ezta gutxiago ere. Aitzitik, Euskal Herri osorako hezkuntza oinarri komun batzuk finkatu behar dira, besteak beste: ikasleen heziketarako oinarriko helburu eta irizpideak; euskal curriculum komuna; ikasle, irakasle nahiz gurasoen oinarriko eskubideak; baliokidetasuna eta mugikortasun sistemak; unibertsitate esparru bateratua. Irizpide hauek instituzio publikoen nahiz Euskal Herri osoko hezkuntza komunitatearen

2. Udalerrri populatuaren kasuan izan ezik, kudeaketarako eskala egokiena eskualdea dela deritzogu. Horregatik aipatzen ditugu, udalak ez ezik, udal mankomunitateak. Halere, etorkizuneko Euskal Herriaren antolaketa politikoan, eskualdearen ideian sakontzea interesgarria izan liteke hainbat eremu kudeatzeko, hezkuntza besteak beste.

3. Jakina, antolaketa politikoaren garapeneraren arabera moldatu egingo litzateke ere hezkuntza administrazioa, esaterako EAE osotasun bat baino, herrialdeka antolatuko balitz.

parte hartzeaz zehaztu eta etengabe berri behar dira.. Parte hartze hau gauzatzeko mekanismoak ezarri beharko dira, besteak beste erabakietan parte hartzeko ahalmena aitortuko zaion Euskal Herriko Eskola Kontseilua.

Jakin badakigu proposatzen dugun antolaketa eredu honek iraulketa sakona suposatzen duela. Ez da proposamen itxi bat: guretzat deszentralizazioaren norabidean doazen bestelako formulak ere aurrerapausoa lirateke egungo eredu zentralizatu eta hertsiarekiko.

Hezkuntza sistemaren ardatza izango den eskola publiko komunitarioan, udal titularitatea (0 urtetik batxiler eta lanbide heziketaraino) luketen herri eta auzo eskola autogestionatuak aurreikusten ditugu.

Ezagutzen ditugun hezkuntza administrazioen kudeaketa zentralizatuaren aldean, egitura deszentralizatu defendatzen dugu. Eskola bakoitzeko hezkuntza komunitateak izango du hezkuntza egitasmoaren gaineko erabakiak hartzeko eskumena. Udala edo udal mankomunitatea (edota eskualdea, lehen aipatu bezala) litzateke ikastetxearen titularra (eraikinen jabea nahiz langileen kontratazioen subjektu legala) eta hezkuntza komunitatea⁴ berriz hezkuntza egitasmoaren subjektua edo "titularra". Jakina, hala udalerrria/eskualdea nola ikastetxe bakoitzeko hezkuntza komunitateak Euskal Herri mailan finkatutako irizpideak aintzat hartu beharko dituzte eta hiru hezkuntza administrazioek bermatu behar dute horrela dela.

Eskola herriari irekia eta herrian integratuta legoke, herri eragileekin elkarlanean Herri Hezitzailea osatuz. Edozein kasutan ere, kontutan hartuz Euskal Herriko herri eta auzo ezberdinen antolaketa eta dinamismo maila ezberdina dela, hezkuntza administrazioak laguntza berezia eman beharko lieke ahalmen txikiagoa duten eskualde eta eskola horiei. Finean, deszentralizazioaren aukerak baliatzea proposatzen dugu (kudeaketa zuzena eta demokratikoagoa, behetik gorako berrikuntza prozesuen sustapena), izan litzakeen arriskuak (eskualde eta eskolen arteko desorekak) ekidinez.

Euskara izanen da hezkuntza sistemaren hizkuntza nagusia. Ikastetxea euskaraz biziko da eta langile guztiak euskaldunak izanen dira.

Helburua ikasle euskaldun eleanitzak sortzea izanen da eta euskaraz gain, ikasle guztiek gutxieneko gaitasuna lortuko dute gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Ikastetxea euskaraz biziko da eta hezkuntzako langile guztien lan hizkuntza euskara izango da. Bertako euskalkiak bere trataera izanen du. Eskolako ikasleek bestelako ama-hizkuntzarik balute, hezkuntza prozesuan horiek barne bildu eta aberastasun gisa jorratuko litzateke.

Euskal Curriculumean eta pedagogia aktiboetan oinarritutako hezkuntza eredu aldarrikatzen dugu

☒ **Bizitza erdigunean jarriko duen eta justizia sozialean oinarrituko den jendarte eredu baterako baloreak lehenesten ditugu:** kooperazioa, kolektibitatea, desberdinen arteko parekidetasuna, parte hartzea, inklusibitatea, doakotasuna, hezkidetzak, demokrazia, justizia soziala, ekologismoa, laiktasuna, feminismoa, norberarekiko, besteekiko nahiz ingurumenarekiko errespetua, kritikotasuna.... Hezkuntza askeagoaren alde egiten dugu, dogmatismorik gabe, irekiagoa eta malgutasun gehiago izango duena. Sormenari, arteari eta gorputz-adierazpenari garrantzi gehiago emanez.

☒ **Herri partaidetzaz egindako eta etengabe berritutako Euskal Curriculum komuna aurreikusten dugu.** EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko administrazioek osatu dezakete Curriculum komun hori, nor bere esparruan, beti ere parte hartzearen irizpide berari eutsiz. Udalerrri/eskualde mailan, tokiko ingurune sozial eta naturalaren arabera tokiko curriculumak landuko dira, bertako ikastetxe ezberdinen parte hartzeaz. Hezkuntza formala, ez-formala eta informala uztartuko dira, Herri Hezitzaileen filosofiari jarraiki. Ikastetxea herrian integratua egonen da eta herriko eragileekin elkarlana sustatuko da.

☒ **Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza egitasmoa izango du, bertako hezkuntza komunitateak erabakitakoa.** Hezkuntza egitasmo horren arabera prestakuntza espezifiko eskatuko zaie bertako irakasle eta langileei. Horretarako, administrazioak edozein irakasle nahiz jarduneko irakasle egin ahal izango dituen moduluak eskainiko ditu. Bestelako hezkuntzako langileei ere prestakuntza bermatuko zaie. Jangelen eredu berria ikastetxetako hezkuntza proiektuan txertatuko da: eskola bat, sukalde bat.

4. Hezkuntza Komunitateaz aritzean, eskolarekin lotutako pertsona guztiak ditugu gogoan: ikasleak, familiak eta eskolak jardun dezan beharrezkoak diren langile guztiak (irakasleak, atezainak, jantokiko langileak eta abar).

- ☒ **Hezkidetzaz izango da hezkuntza jardueraren ardatza.** Feminismotik birpentsatu egingo da hezkuntza jarduera osoa, hasi espazioen antolaketatik eta helburu pedagogikoen formulazioraino.
- ☒ **Hezkuntza prozesua pedagogia aktiboetan oinarrituko da.** Ikuspegi pedagogikoari dagokionez, konpetentzietan oinarritutako pedagogia aktibo eta ez autoritarioen aldeko apustua egiten dugu. Ikaslea izango da hezkuntza prozesuaren subjektu nagusia. Errespetuz jokatu da ikasle bakoitzaren behar eta bizi prozesuarekin. Txikitatik erabakiak hartzeko eta erabaki horien kargu egiteko aukera izan behar dute ikasleek.
- ☒ **Ebaluazioa, ikasle bakoitzaren konpetentziak garatzera bideratuko da,** bakoitzaren erritmo eta beharretara egokituz. Kalifikazioa eta azterketen eredu gaituz eta konpetentziak garatzera bideratutako ebaluazio eredu ezarriko da. Era berean, hezkuntza sistemaren ebaluazio integralari garrantzia emango zaio, ranking eta bestelakoak sortzeko baino, hezkuntza sistemari jartzen dizkiegun helburuak betetzeari begira neurriak hartzeko.
- ☒ **Hezkuntza, kolektibitatearen beharrei begira.** Hezkuntza prozesuaren edukiak eta garatzeko gaitasunak Euskal Herriko jendartearen beharrei begiratu behar du, era planifikatu baina, aldi berean, malgu batean; eta ez, gaur egun neurri handi batean gertatzen den bezala, kapitalistek etekinak handitzeko lehenesten dituzten ildoen arabera.

Langileriarri dagokionez, prestakuntza, aitortza soziala eta lan-baldintza egokiak bermatuko dira.

- ☒ **Prestakuntzari dagokionez:** irakaslegaei nahiz hezkuntzako gainontzeko langilegaiei begira, ikasketa eta lan tutorizatuaz uztartu; prestakuntza jarraia curriculum orokorraren nahiz ikastetxe bakoitzeko hezkuntza egitasmoaren arabera antolatu; irakaskuntza ikasketan sartzeko iragazkiak eta profil egokitasun neurketak.
- ☒ **Kontratazioari dagokionez:** dagokion instituzioak (0 urtetik batxiler eta lanbide heziketaraino, udalek eta udal mankomunitateek) gauzatu du kontratua baina profilarren zehaztapena nahiz kontratazio prozesuaren kudeaketa, dagokion instituzioak eta hezkuntza komunitateak elkarlanean egingo dute. Gaitasun, berdintasun eta merituan oinarritutako prozesu garden eta eraginkorrak diseinatuko dira.
- ☒ **Lan baldintzei dagokionez:** haur eta lehen hezkuntzako langileen aitortza eta lan baldintzak, bigarren hezkuntzakoekin parekatu, formazio baliokidea eta lan berdina eskatuko zaien heinean. Lan berdina=Lan baldintza berdina=Soldata berdina, hezkuntzako langile ororentzat.

3. TRANTSIZIORAKO PROPOSAMENA:

hezkuntza sistema burujabearen eta euskal eskola komunitarioaren bidean

Erronka bikoitza dakusagu datorren epealdian: batetik, hezkuntza sistema burujabea eratzea Euskal Herria osatzen duten hiru lurraldeetan; bestetik, euskal eskola publiko komunitarioa eratzea, hezkuntza sistema horren ardatz gisa.

Jakina, erronka estrategiko hauek ezin dira hezkuntza esparruan modu isolatuan garatu. Aitzitik, Euskal Herrian aldaketa sozial eta politikoa gauzatzeko burujabetza prozesuarekin uztartu beharra dago hezkuntza eremurako proposamenak. Izan ere, maila politikoan burujabetzarako ateak ireki ezean, hezkuntza eraldaketaren norabidean urratsak eman bai baina ez da posible izango hezkuntza sistema propioaren eta euskal eskola publiko komunitarioaren eraikuntza bururaino eramatea (ikus eskema).

3.1 Hezkuntza burujabetza eskuratu, hezkuntza sistema propioa eraikitzeko

Hezkuntza sistema burujabeak eratzeari begira, EAEko nahiz Nafarroako estatus berriek hezkuntzako eskumen osoak biltzea aldarrikatuko dugu. Era berean, Ipar Euskal Herriko Elkargoak hezkuntzaren gaineko eskumenak hartzen joan dadin saiaturako gara. Halere, burujabetza eskuratzeko erronka ezin daiteke utzi eztabaida instituzionalak ematen duenaren aiduru; euskal hezkuntzaren historian erakutsi bezala, oinarrian lan egin eta espazioak irabaztea ezinbestekoa da, gerora aurreratutakoaren aitortza marko juridiko-politikoetan lortzeko.

Horrela izan zen euskarazko irakaskuntzarekin frankismoan zehar eta horrela izan da berrikuntza pedagogikoarekin ere. Honela, ikastetxez ikastetxe hezkuntza eredu propioa eta askatzaile baten aldeko urratsak sustatuko ditugu, "lrueten" filosofiari jarraiki, marko legalak ezartzen duenaren gainetik. Era berean, hezkuntzan ere burujabearen aldeko herri akordioa egitea defendatzen dugu, hala Estatuetatik datozen erasoei erantzuteko nola gaurko esparru juridiko-politiko gaituzteko.

Lurraldetasunari dagokionez ere, eskema bera defendatzen dugu: herri ekimenaren eta ekimen instituzionalaren arteko uztarketa. Alde batetik, hezkuntza komunitatean elkarlan nazionalerako joerak indartzea proposatzen dugu, praktikan erreferentzia komunak elikatuz. Elkarlan hau egitasmo zehatzetan gauzatu daiteke (esaterako, Euskal Curriculumean) eta baita orokorrean ere (esaterako, Errepublikaren momentura itxaron gabe, eragileen arteko adostasunez Euskal Herriko Eskola Kontseilua osatuz).

Beste alde batetik, hiru administrazioen eta hiru esparruetako unibertsitateen arteko elkarlana aldarrikatzen dugu. Jakina, elkarlan honek proiektio handiagoa hartuko luke baldin eta estatus berrien eztabaiden ondorioz egitura komunak (esaterako, unibertsitate barruti komuna) sortzeko apustua egongo balitz, baina edozein kasutan ere gaurdanik beharrezkoa da urratsak ematen hastea, hizkuntza edota curriculumaren alorrean elkarlana gauzatzuz, edota hezkuntza eragileen ekimenez sor litekeen Euskal Herriko Eskola Kontseiluari zilegitasuna aitortuz.

Hortaz, gaurdanik hasita, honako ardatz estrategiko hauek lantzea planteatzen ditugu:

- ☒ Estatus berrietan hezkuntza eskumen osoak jasotzea eta garatzea, bai EAEn baita Nafarroan ere. Ipar Euskal Herrian, elkargo berrian hezkuntza gaiak jorratzen hastea, eskumen osoen norabidean.
- ☒ Egunez egun nahi eta behar dugun hezkuntza eredu euskaldun, parekide eta askatzailearen aldeko eraikuntza lana egitea, oztopo diren legeen gainetik hezkuntza komunitatearen legitimitatea defendatuz. Norabide horretan hezkuntza akordioak egitea proposatzen dugu, maila lokaletik hasita, behetik gora eraikiak.
- ☒ Estatuetatik datozen erasoan aurrean herri erantzunak artikulatzea. Era berean, nahi eta behar dugun hezkuntza ereduak eraikitzeko herri akordioak sustatzea.
- ☒ Euskal Herriko hezkuntza komunitatearen baitan nahiz hiru esparruetako instituzioen (Gobernu nahiz unibertsitateen) artean elkarlana sustatzea. Euskal Curriculumak garatzeko, murgiltze ereduak sustatzeko edota lurralde ezberdinetako ikastetxeen arteko harremana sustatzeko ekimen komunak beharrezkoak dira.
- ☒ Gaurdanik Euskal Herriko Eskola Kontseilua sortzea proposatzen dugu, hastapenetan euskal hezkuntza komunitatearen eztabaida eta akordioetarako foro bezala. Aurrerago, burujabetza prozesuan aurrera egin ahala, Euskal Herriko Errepublika Konfederalaren erreferentziako instituzio bilakatuko litzateke.
- ☒ Era berean, Euskal Herriko unibertsitateen arteko koordinazio gune iraunkor bat sortzea proposatzen dugu.

3.2 Euskal eskola publiko komunitarioa sortzeko konfluentzia helburu

Bestalde, euskal eskola publiko komunitarioa eratzeari begira, egungo eskola publikoaren eta bokazio publiko/komunitarioa duten eskola kontzertatuen arteko konfluentzia estrategikoa defendatzen dugu.

Konfluentzia honetarako, beharrezkoa da, batetik, egungo eskola publikoa deszentralizatzea eta autogestio ereduak garatzea, euskal eskola publiko komunitarioa garatuz; eta bestetik, ikuspegi publiko/komunitarioa duten eskola kontzertatuetatik ere (hala nahi duten ikastolak, "eskola libreak" edota bestelakoak) euskal eskola publiko komunitarioko trantsizioa egitea. Bi eremuetan emango litzateke, batetik, proposamen honetan definitutako hezkuntza eredurako garapena; eta bestetik, titularitate aldaketa: tokiko instituzio publikoa bihurtuko litzateke ikastetxearen titularra (eraikinen jabea nahiz kontratazioen subjektu legala) eta hezkuntza komunitatea berriz hezkuntza egitasmoaren subjektua edo "titularra".

Konfluentzia honen ikuspegia gaurdanik jorratu beharko litzateke, aldeko baldintza sozialak sortuz eta elkarlan esperientziak martxan jarritz. Alabaina, egitasmo hori bururaino eramateko, beharrezkoa da baldintza juridikoak ere sortzea, hiru esparru administratiboetan estatus berriak inplementatuz. Izan ere, espainiar eta frantziar legeen arabera nekez gauzatu daiteke euskal eskola publiko komunitarioaren sorrera; konfluentzia, Euskal Herriko legedi propioaren arabera eman beharko litzateke. Berritoki diogu, horrek ez du esan nahi euskal eskola publiko komunitarioaren lanketa sine die atzeratzea. Gaurdanik jorratu behar da aldarrikapen hori, gaurdanik egin behar da borroka ideologikoa, gaurdanik bilatu behar dira horren inguruko adostasunak eta gaurdanik eman behar dira urratsak eskualdez eskualde.

Atal honi dagokionez, gaurdanik hasita honako helburu estrategiko hauek garatzea planteatzen dugu:

- ☒ Euskal eskola publiko komunitarioa definitzeko adostasunak bilatu eta horren aldeko indarrak biltzea.
- ☒ Balizko konfluentzia baten aspirazio historikoa eguneratzea, beti ere kontutan hartuz urrats hori ahalbidetuko lukeen euskal legedia sortzeko beharra dagoela.

- ☒ Udalen laguntzaz, egungo eskola publikoen eta ikuspegi komunitarioa duten eskola kontzertatuen arteko elkarlan esperientziak sortzea udalerrri/eskualde mailan, hala segregazioari aurre egiteko nola euskalduntzean, curriculumean edota parekidetasunean urratsak emateko.

3.3 Trantsizioa nola egin. Gaurdanik ibiltzen hasi.

Hemen proposatzen dugun trantsizioan aurrera egiteko, beharrezkoa da:

- ☒ EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko instituzioak interpelatzea, hezkuntza eragileekin elkarlanean trantsizioa ahalbidetzeko erabakiak har ditzaten.
- ☒ Euskal Herriko hezkuntza komunitatean trantsizioa sustatzeko Hezkuntza Akordioa, edo/eta gaikako akordioak, jorratzea.
- ☒ Eta batez ere, ikastetxe nahiz udalerrri/eskualde mailan plangintzak egitea, tokian tokiko arazo eta beharrei (dela segregazioa, euskalduntzea, curriculumea edota hezkidetzak) erantzun komuna eta baikorra eman ahal izateko.

Hitz batez, instituzioen zain edota elkarren kontrako lubakietan egon baino, auzolanari ekitea proposatzen dugu. Badakigu hainbat kasutan akordioak ez direla errazak izango baina iruditzen zaigu denon mesederako izango den hezkuntza eredu eraiki nahi dugunok ahaleginak egin behar ditugula. Ipar-orratza argi izanda (hezkuntza sistema propioa, eskola publiko-komunitario berria), egin dezagun txinaurri lana, ikastetxe nahiz herri mailan elkarlanerako esparruak sortuz eta gure ibilbidearen onena berreskuratuz.

Jakin badakigu bide horretan Estatuaren legedia eta politikak izango ditugula oztopo. Beharrezkoa izango da, historian egin bezala, desobedientzia jarrera inplizitu eta esplizituak hartzea. Baina lehenik eta behin, nahi eta behar dugun hezkuntza eredu adostea eta eraikitzen hastea da beharrezkoa.

4. EPE MOTZ-ERTAINERAKO NEURRIAK.

Eremu desberdinetatik, euskal eskola publiko komunitariorako bidean

Aurreko atalean egindako trantsizio proposamena aintzat hartuta, hala orokorrean nola bi hezkuntza eremuetan (egungo publikoa eta kontzertatua) neurri zehatzak hartzea proposatzen dugu:

4.1 Hezkuntza esparru osoari begira

Hezkuntzan inbertsio publikoa handitu, desberdintasun orori aurre egiteko neurriak hartu eta hezkuntza eredu propioa garatu beharra dago. Horretarako, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

- Hezkuntzan baliabide publikoak nabarmen handitzea, Europako beste herrialdeekin alderatuta hezkuntzak pairatzen duen azpifinantziarioarekin amaituz (BPGren %6 hezkuntzan inbertitzea izan daiteke erreferentziako helburua). Ratioak nabarmen jaitsiko dira, eskola guztietan.
 - Segregazio eta diskriminazio mota guztiekin amaitzeko apustu estrategikoa egingo da: errenta baxuko ikasleen segregazioa, jatorri edota kultura atzerritarreko ikasleen segregazioa, generoaren arabera segregazioa, aniztasun funtzionalaren arabera, adinaren arabera eta baita ere hiru nazio sentipen ezberdinek eragindakoa (hezkuntza edo kulturen arabera segregazioa)...
- ☒ Ikastetxeko beharren arabera (errenta eta aniztasuna) ratioen progresibitate ezarriko da (alegia, gero eta errenta baxuagoa nahiz aniztasuna jorratzeko behar handiagoa, orduan eta ratio txikiagoak). Honekin batera, aniztasuna aberastasun bezala jorratzeko baliabide espezifikoak jarriko dira: aniztasun funtzionala, sozio-linguistikoak, jatorriaren arabera... Ohiko hezkuntza jardura jarraitzerik ez duten ikasleei dagokionez, metodo farmakologikoen erabilpen masiboa baztertzea proposatzen dugu.
 - ☒ Murgiltze eredu garatuko da eskola guztietan, euskara integrazioarako elementua bilakatuz. Era berean, arrazismo eta nazio gutxiespen oro gaindituko duen curriculumea sustatuko da.
 - ☒ Feminismoa bilakatuko da hezkuntza sistemaren ardatz. Generoaren arabera segregazio eta diskriminazio oro ezabatzeko plangintza estrategikoa egingo da.

c. Giza kohesioaren kontrako gehiegikeriak saihesteko asmotan, Administrazioak inklusiorako beharizanen indize bat sortuko du eta gutxieneko eta gehieneko tarteari ezarri.

☑ Zentro bakoitzeko adierazle-multzo bat hartuko da oinarri: bekadun ikasle, hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasle, hezkuntza beharizan bereziak edo berariazkoak dituzten edota adopzio edo familia- edo egoitza-harrera egoeran dauden ikasleen portzentaiak eta aintzat hartu beharreko beste adierazle batzuk.

☑ Behin kontzeptu hori araudian jasota, hezkuntza arloko Administrazioak urteroko txosten bat landuko du Lurralde, eskola-eremu edota zonalde eta ikastetxe bakoitzeko indizea erabilita.

☑ Inklusiorako beharizanen indizeak ezarritako tartean mugitu beharko dira diru publiko hornitutako ikastetxe guztiak. Aipaturiko indizea definitzerakoan, Lurraldearen erreferentzia globalei eta ikastetxeak dauden eskola-eremu edota zonaldearen erreferentzia hurbilagoi erreparatu die.

Segregazio fenomeno larri ematen den eskualdeetan, gaurdanik hartuko dira neurriak tokiko hezkuntza komunitatea inplikaturik eta eskumenak dituzten Instituzioei konpromiso zehatzak eskaturik⁵.

d. Eskola publiko eta kontzertatu guztietan honako irizpide hauek garatuko dira:

☑ Euskarazko murgiltze eredua: derrigorrezko eskolaldia amaitzean, ikasle guztiak euskararen ezagutza osoa lortu behar dute. Eskolako komunitatea euskaraz bizi ahal izateko plangintzak ezarri.

☑ Hezkidetzak: hezkuntza egitasmoaren funtsezko ardatz gisa ezarriko da eta eremu guztiak barne bilduko ditu (curriculum, pedagogia, espazioen antolaketa, harremanak, barne funtzionamendua...)

☑ Hezkuntza komunitate osoak partekatutako eta Euskal Curriculumean oinarritutako hezkuntza egitasmo propioa.

☑ Konpetentzietan oinarritutako pedagogia aktiboak. Ikaslea bilakatuz hezkuntza jardueraren subjektu.

☑ Ikasle bakoitzaren erritmo eta beharretara egokitutako ebaluazioa. Kalifikazioa eta azterketen eredua gainditu eta konpetentziak garatzera bideratutako ebaluazio eredua ezarriko da.

☑ Parte hartzea eta gardentasuna. Hezkuntza komunitate osoak izango du hezkuntza egitasmoaren diseinuan eta garapenean parte hartzeko aukera.

☑ Laikotasun erreala.

☑ Doakotasun erreala.

☑ Herrian txertatua egotea eta herri eragileekin elkarlanean aritzea.

5. Honako hauek dira premiazko segregazio egoerei aurre egiteko proposatzen ditugun neurriak:

Hezkuntza Saila eta dagokion Udala koordinatuta, eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea bermatuz, matrikulazio bulego bakarra martxan jartzea. Matrikulazio bulego bakar horrek honako eginkizunak bete beharko ditu:

1. Herriko/auzoko diagnostika burutzea

a. Segregatzaileak diren elementuen inguruko hausnarketa egingo da: ikasgelen "blindajeak", laikotasun eza, hezkuntza ereduak, baremazioak, kuotak, informazioa/bideraketa eta errealitate demografikoa.

b. Inklusiorako beharizanen indizea aplikatuko da. Datu demografikoak ikertuta, indizeak auzoaren/gunearen errealitateari erantzun beharko dio.

2. Ikastetxez ikastetxe, emaitzak aztertu eta egoera zuzentzeko neurriak hartu segregatzaileak diren elementuei erreparatu.

Inoiz ez da izango ikasleen banaketa soil bat. Neurriak integralak izango dira eta sistemaren desorekak konpontzeari begira hartuko dira. Familien profil anitza nahi dugu eskola guztietan.

Hezkuntza Saila eta dagokion Udala koordinatuta, eta hezkuntza komunitatearen parte hartzea bermatuz, jarraipena, auditoriak eta baliabideen beharren azterketa egitea.

Arestian aipaturiko neurriak aplikatu ostean, eragindako ikastetxeen baliabideen sarrerak eta behar estrukturalak eta ekonomikoak aztertzeko, inplikaturik dauden Instituzioek auditoria zorrotzak eta gardenak egingo dituzte. Auditoria horien emaitzak eta sorturiko beharrak, hezkuntza komunitatearekin partekatuko eta adostuko dira.

e. Udalen parte hartzea indartzea.

☒ Hezkuntza formala, ez-formala eta informala uztartzeko.

☒ Etorkizunean eskola publikoen kargu egiteko prestatzen hasteko.

☒ Gaurdanik hasita, euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean kokatzen diren herriko eskola ezberdinen arteko dinamika bateratuak sustatzeko.

☒ Eskolen diseinua herriko plangintza orokorrean integratzeko (hiri orekatu eta ez segregatuan auzo biziak eta haiei lotutako auzo eskolak).

☒ Segregazio prozesuei aurre egiteko, hezkuntzaren ikuspegitik bai baina baita hirigintzaren ikuspegitik ere. Hezkuntzaren ikuspegitik segregazioari aurre egiteko, herri edo eskualdeka eskolaratze bulegoak garatzea proposatzen dugu, tokian tokiko errealitateari egokituta.

f. Langileriarri dagokionez:

☒ Langileei ezarritako murrizketa oro bertan behera utzi.

☒ Lan baldintza egokiak bermatu kolektibo guztietan eta sare guztietan.

☒ Prestakuntza-sistema sakonki birmoldatu.

☒ Langileen egonkortasuna bermatu.

☒ Lan baldintzen estatalizazioari aurre egin eta negoziazio kolektibo erreala berreskuratu.

g. Berritzeguneak (EAE) nahiz irakasleen laguntza zentroak (Nafarroa) berrantolatu behar dira, bloke honetan azaldutako erronkei heldu ahal izateko. Era berean, bi esparru administratiboetan dauden hezkuntza baliabideen eta Ipar Euskal Herriko eskolen arteko elkarlana sustatzea proposatzen dugu.

4.2 Egungo sare publikoari begira

Egungo eskola publikotik, herri eta auzo eskoletan oinarritutako euskal eskola publiko berrirako trantsizioa egin beharra dago, 6.1 atalean zehaztutako irizpideak eskola publiko guztietan garatuz. Eskola publikoan autogestio ereduari eta parte hartzeari atea irekitzea funtsezkoa izango da. Besteak beste honako neurrietan arreta jarri beharra dago:

a. Eskola publikoarentzat gaur egungo erronken aurrean behar bezala erantzuteko baliabide nahikoak, estrukturalak, pertsonalak eta ekonomikoak, bai herrigune handietan baita landa eremuko eskolei dagokionean ere. 0 urtetik hasita doakotasun erreala bermatu beharra dago, kuota oro desagertze bidean jarritz (materiala edota jantokia barne).

b. Errenta baxuko eta jatorri atzeritarreko ikasleen segregazio prozesuari aurre egiteko, epe jakin batean premiazko plana: eskola segregatuetatik ihes egin duten klase ertaineko familiak erakartzeko planak, baliabide bereziak, epez-kanpoko matrikula eskola segregatuetara ez bideratzea,...

c. Murgiltze eredu eta Euskal Curriculumak garatu, eskola publiko guztietan.

d. Emakumeen kontrako diskriminazioari aurre egiteko eskolako plan estrategikoa.

e. Eskola publiko autogestionatuak sortzea, ziurrenik hasieran egitasmo piloto gisa, eta zabaltzea. Kudeaketa eredu gardenak eta demokratikoak. Diru publikoaren kudeaketa gardenak bermatuz.

f. Eskola publiko guztietan, hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta erabakimena indartzeko neurriak hartzea, Eskola Kontseiluaren erreformatik hasita. Zuzendaritza eredu gerentzialarekin amaituz.

g. Laikotasun erreala bermatu beharra dago, hala ospakizunei (aste santua, gabonak) nola curriculumari dagokionez (irizpide erlijiosoz kontratatutako irakasleek emandako erlijio klaseak).

- h. Hezkuntzako langileen egonkortasuna bermatzea lehentasunezkoa da eskola publikoetan hezkuntza egitasmo sendoak garatu ahal izateko. Lan eskaintza publiko zabalekin batera, egonkortasuna hobetzeko formulak arakatu beharko lirateke. Era berean, LEP eredia eta sarbide sistema oro har berrikustea proposatzen dugu.

4.3 Egungo ikastetxe kontzertatuei begira

Eremu kontzertatuan askotariko egitasmoak daude: ikuspegi komunitarioaz aritzen diren egitasmoetatik hasi (izan ikastola edo izan bestelako eskola) eta hezkuntza elitista helburu duten horietaraino. Ikuspegi komunitarioz aritzen direnei dagokionez, dagokion Hezkuntza Sailaren eta ikastetxe bakoitzaren artean euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean elkarlanean aritzeko akordio estrategikoa egitea proposatzen dugu, horren arabera finantziario publikoa finkatuz. Hezkuntza elitista helburu duten eta aipatutako norabidean kokatu nahi ez duten eskolek, aldiz, ez lukete diru publikorik jasoko.

Euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean kokatu eta ondorioz finantziario publikoa jasoko luketen eskola kontzertatueta 6.1 atalean azaltzen diren irizpideak garatu beharko dituzte. Honako hauetan arreta berezia jarritz:

- a. Murgiltze eredia eta Euskal Curriculumak garatu, diru publikoa jasotzen duten eskola guztietan.
- b. Errenta baxuko eta jatorri atzerritarreko ikasleen segregazio prozesuari aurre egiteko, epe jakin batean ezaugarri horietako familiak erakartzeko planak.
- c. Emakumeen kontrako diskriminazioari aurre egiteko eskolako plan estrategikoa.
- d. Laikotasun erreala. Erlijioa, hezkuntza egitasmo eta jardueratik at. Kontratazioetan, irizpide erlijiosorik ez. Ospakizunetan kutsu erlijiosorik ez.
- e. Hezkuntza egitasmoaren titularra hirugarren bat baino (enpresa, fundazio edota orden erlijiosoa), bertako hezkuntza komunitatea izatea hobetsiko da. Parte hartzea bermatuz eta zuzendaritza eredu gerentzialarekin amaituz.
- f. Doakotasun erabatekoa, horretarako hileroko kuotek eta kooperatibista izateko kuotek desagertzera jo beharko lukete.
- g. Diru publikoaren kudeaketa gardena.
- h. Kontratazio batzordeak ezartzea eta berdintasunean, merituan eta ahalmenean oinarritutako hautaketa prozesua bermatzea, kontratazioetan diskriminazio oro ekidinez.
- i. Langileen lan baldintzak eskola publikoarekiko homologatzeko trantsizioa.

Esan bezala, irizpide hauekin bat egiten duten eskolekin kontzertuak berrituko dira epealdi baterako (esaterako, 2-3 urterako). Eskola bakoitzean auditoria edota azterketa ekonomiko sakon bat egingo da, finantziario beharrak zehazteko. Euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean elkarlanean aritzeko akordio estrategikoa sinatu eta aipatutako irizpideak betetzen dituzten eskolek, hezkuntza egitasmoa garatu ahal izateko beharrezkoa den finantziario publiko guztia jasoko dute. Hitzartutako epea amaitzean, ebaluazio sakona egingo da, bai irizpideen gauzaperari dagokionez baita finantziario beharrei dagokionez ere. Honenbestez, kontzertazio politika errotik aldatzea da proposatzen duguna, euskal eskola publiko komunitarioarako trantsizioa egiteko tresna gisa erabiliz.

4.4 "Eskola libreak"

Badira kontzertu sistematik kanpo aritzen diren eskola "libreak" edo "aktiboak" nahiz askotariko hezkuntza egitasmo ez formalak. Hauei dagokionez ere, euskal eskola publiko komunitarioaren norabidean elkarlanean aritzeko eskaintza egin beharko litzateke. Atal honen inguruko azterketa sakonago bati helduko diogu aurrerago.

4.5 Unibertsitatea eta lanbide heziketa


Txosten honetan zertzelada batzuk azaldu badira ere, unibertsitate eta lanbide heziketaren inguruan gogoeta espezifiko bat egin beharra dago, hemen azalduko filosofiaren ildotik.

4.6 Hezkuntza ez-formala eta informala

Aurreko ataletan arreta batez ere hezkuntza formalean jarri badugu ere, argi dago hori bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa dela familiek, aisialdi arloko egitasmoek, hezkuntza egitasmo osagarriek, komunikabideek eta oro har jendarteak egin dezakeen ekarpena. Azken batean, eskolan ematen dugun denbora haur eta gazteen bizitzaren zati bat baino ez da. Eta hezkuntza era integralean hartuta, bizitza osoan irauten duen prozesua da. Gauzak horrela, ezinbestekoa da hezkuntza ez-formal eta informalarik begirako egitasmoak sustatu eta koordinatzea, Herri Hezitzailearen filosofiaren ondotik.




iruten







iruten



www.iruten.eu